

C1 maila definitzen duten trebetasunak irakasleak bere lanean izango dituen testuinguruetara ekarri ditugu ondorengo taulan:

EREMUAK		Irakaslea-ikaslea	Irakaslea-irakaslea/zentroa	Irakaslea-familiak
AHOZKOA	Mintzamina	- Gai izango da ikasgaien ahozko azalpena emateko. - Gai izango da ikasleei ulertzen ez dituzten puntuen inguruko azalpenak emateko. - Gai izango da ikasleei ikaskuntzan bizi dituzten hutsuneen eta aurrerapenen inguruko azalpenak emateko. - Gai izango da ikasleen orientaziorako (akademikoa zein lanekoa) azalpenak emateko.	- Gai izango da zentroak edota Administrazioak eskatutako proiektuak aurrera ateratzeko. - Gai izango da gainerako irakasleekin izan beharreko elkarriketetan parte hartzeko. - Gai izango da zentroko bileretan parte hartzeko eta jario-maila egokia izango du. - Gai izango da irakaskuntzaren inguruko gai abstraktuez hitz egiteko, baita bere iritziak emateko ere. - Gai izango da irakasleekin, testuingurua kontuan izanik, hizkuntza maila ezberdinetako elkarriketak mantentzeko.	Gai izango da ikaslearen prozesuaren berri familiari emateko, aholkuak emateko, argibideak emateko, eriritziak eta eskaerak azaltzeko...
	Entzumena	- Gai izango da ama-hizkuntzan diharduten ikasleen elkarriketa ulertzeko, baita berari zuzenean egiten diotenean ere. - Gai izango da gazteen hizkera ulertzeko - Gai izango da ikasleek ahoz sortutako testua oso era egokian eta asertiboan zuzentzeko; zuzenketarako egokitasuna, koherentzia, kohesioa... kontuan izanik.	- Gai izango da lagunartean erabiltzen diren esamoldeak bereizteko eta ulertzeko. - Gai izango da irakasleen bileretako gaiei buruzko azalpenak (ikasleriaren inguruko azalpenak, plan berriak, programazioa...) ulertzeko. - Gai izango da zentroan antolatzen diren hitzaldiak nahiko erraz jarraitzeko. - Gai izango da zentro mailan antolatzen diren klustroetan ematen diren azalpenak eta eztabaida teknikoak jarraitzeko. - Gai izango da bere ikasgaiaren inguruko informazio tekniko konplexua euskaraz ulertzeko. - Gai izango da ama-hizkuntzan diharduten beste irakasle batzuei ulertzeko.	Gai izango da familiako kideei ulertzeko, nahiz eta euskara baituan ez egin.
IDATZIZKOA	Idazmena	- Gai izango da ikasleekin landu behar dituen gaiak egoki idazteko: puntu nagusiak, azalpenak, adibideak... - Gai izango da ikasleek egin beharreko azterketa eta ariketak era ulergarrian idazteko. - Gai izango da ikasleei igorri beharreko testu-tipologia (ikasleen adin-mailaren arabera) idazteko.	- Gai izango da ikaslearen prozesuaren ebaluazioa modu egokian idazteko. - Gai izango da irakaskuntzaren prozesuaren ebaluazioa xehe eta argi idazteko. - Gai izango da zentroak eskatutako dokumentazio idatzia (txostenak, eskaera-gutunak...) akatsik gabe eta dagokion maila teknikoan idazteko. - Gai izango da idatziz beste kideekin komunikazio egokia mantentzeko, bakoitzerako erregistro egokia aukeratzuz.	Gai izango da gurasoei bidalitako oharretan eta gutunetan honakoak kontuan hartzeko: erregistroa, gaiaren koherentzia, testuaren kohesioa eta egokitasuna.
	Ulermena	- Gai izango da ikasleek idatziz egindako testuak ulertzeko. - Gai izango da ikasleek idatzitako testu oro ikuspuntu ezberdinetatik zuzentzeko: alde gramatikala, ortografikoa, pragmatikoa, testuaren berezko ezaugarriak...	- Gai izango da zentroak bidalitako gutunak ulertzeko, inolako arazorik gabe, gainera. - Gai izango da artikulua eta argibide teknikoak ondo ulertzeko, nahiz eta bere espezialitatekoak ez izan. - Gai izango da lankideren batek utzitako oharra arazorik gabe ulertzeko. - Gai izango da irakaskuntza-prozesua hobetzeko behar dituen ikerketarako materialak erraz ulertzeko.	Gai izango da gurasoek bidalitako oharra edota gutunak arazorik gabe ulertzeko.

1. taula. Irakasleak izan behar duen komunikazio-gaitasunaren berri ematen da egunero dituen jarduera-eremuetan.